

PROGRAMA

Gaikuntza nazionaleko funtzionarioak (idazkari eta kontu-hartzaileak) kudeaketa publikoaren esparruan sendotzeko programa

Azken urteotan toki-araubidearen alorrean onartuz joan den arau-esparruak aintzat hartzen ditu gaikuntza nazionaleko funtzionarioek toki-administrazioko sistemaren barruan gauzatzen duten funtzio instituzionalaren ardura handiagoak.

Horrez gainera, aldaketa iraunkor eta etengabeak ari dira jazotzen langile horiek diharduten testuinguruan, batez ere, eremu instituzionalari (gardentasuna, parte-hartzea, elkarlana) dagokionez, bai eta ezagutzaren gizartearen alorrean ere, informazio- eta komunikazio-teknologiei dagokionez bereziki (administrazio elektronikoa, herri-administrazioen gizarte-sareak), baina baita beste zenbait esparrutan ere (kudeaketa-eredu aurreratua, izapide eta prozedurak sinplifikatzea, toki-berrikuntza, eta abar).

EUDELek eta IVAPek egokitzen joan dute kudeaketa publikoko ibilbide bat sustatzea idazkari eta kontu-hartzaileentzat, bi helburu nagusi hauekin: batetik, kudeaketaren kultura indartzea funtzionarioengan eta haiek



eremu kontzeptual eta praktiko batez hornitzea, berme handiagoekin aurre egin diezaioten tokiko gobernuen egituretan betetzen dituzten funtzio garrantzitsuei; bestetik, bat etorraraztea udalen politika eta kudeaketa, eta, bi espaziook egoki lotzeko orduan, gako dira gaikuntza nazionalako funtzionarioak.

HELBURUAK

- ▶ Politikaren eta kudeaketaren arteko bat egitea indartzea udaletan, batez ere, tamaina txikikoetan eta ertainekoetan. Horretarako, idazkaritza-kontu-hartzaitzako eta idazkaritzako arduradunen eskumenak garatuko dira; hain zuzen, zuzendaritzaren eta kudeaketa publikoaren arlokoak.
- ▶ Kudeaketarako tresnak ematea programako parte-hartzaileei, modu koherentean diseinatu ahal izan ditzaten helburu politikoak, hala agintaldikoak nola estrategikoak (agintaldiko plana), eta plan operatiboak taxutu horien gainean.
- ▶ Zuzeneko kudeaketa publikoa eta kasuan-kasuko erakundeen teknikari lanpostuak profesionalizatzea, batik bat, gaitasun nazionalako funtzionarioen esparruan.
- ▶ Helburuetan oinarritako kudeaketa-eredu bat txertatzea tokiko erakundeetan, emaitzetara eta etengabeko hobekuntzara bideratua eta Euskadiko udaletako kudeaketa publikoko eredu aurreratuan oinarritua.
- ▶ Zabalkunde-kultura bat (gardentasuna eta erabakiak komunikatzea) eta gobernu irekiaren ezarpena indartzea programan parte hartzen duten langileen artean.
- ▶ Halaber, arduraren (erabakietan, ekonomiaren kudeaketan...) eta etika publikoaren (gobernu ona) garapena indartzea.
- ▶ Ezagutzak eta tresnak eskaintzea, neurri eraginkorrak ezartzeko kudeaketa prozesuetan (zerbitzuak digitalizatzea, administrazioa eta izapideak sinplifikatzea, eta abar).
- ▶ Moldagarritasunaren, antolaketa aldaketaren eta berrikuntzaren kultura ezartzea.

BALDINTZA OROKORRAK

SAIOAK: NOIZ ETA NON

Programa Bilbon egingo da.

Non: EUDEL, Ercilla kalea, 13, etxabea

Ordutegia: 09:00-14:00

Ziurtagiri-ondorioei dagokienez, 30 ordu iraungo ditu programak

NORENTZAT

- Estatu-mailako gaikuntza duten funtzionarioak
- Tokiko zuzendaritza-langile publikoak: zeharkako nahiz sektoreko alorretakoak eta erakunde instrumentaletakoak
- Arduradun politikoak (alkateak, zinegotziak)
- Salbuespen gisa, programan sartu daitezke, halaber, toki-erakundeetan edo horien erakunde instrumentaletan zuzendaritza nahiz aurre-zuzendaritza postuetan (teknikariak) diharduten pertsonak, baldin eta plaza libreak gelditzen badira.

Gehienez, hogeita bost (25) lagunek eman ahalko dute izena. Eskaintzen diren plazak baino gehiago eskatuz gero, hautaketa-prozesua egingo da.

IZEN-EMATEAK ETA MATRIKULAK

Programan izena emateko, ezinbestekoa izango da erantsitako eskabidea, IVAPen "Ikastaroak egiteko eskaera", betetzea.

Behin "bidali/enviar" sakaturik, IVAPera bidaliko dira datuak automatikoki. Bidalketa automatikoarekin arazoren bat baduzu, bidali mesedez galdeketa, beterik, IVAPen helbide elektronikora: prestakuntza@ivap.eus

IVAPen webgunean deskargatu dezakezu inprimakia, www.ivap.euskadi.eus, bai eta EUDELen webgunean ere, www.eudel.eus

Izena emateko epea 2015eko irailaren 4an amaituko da

251 euroko prezioa du (6 saioak barne). Izen-ematea osatu ondoren, IVAPek dagokion erakundeari igorriko dio faktura, edo eskatzaileari, hala adierazi badu eskabidean.

ZIURTAGIRIA

Hona hemen programaren titulua lortzeko baldintzak:

- Programak irauten duen denboraren %80 betetzea
- Lan-memoria bat egitea, zeinaren helburua izango baita Kudeaketa Publikoko Plan baten eskema bat egitea, dagokion toki-erakundearen errealitateari aplikatua, eta erakundearen berezko beharrei aurre egiteko. Adostutako metodologia-premisen arabera taxutu beharko da eskema, eta, beraz, programan parte-hartzen dutenei, premisok jakinaraziko zaizkie. Lana ebaluatuko da, eta GAINDITUA ala EZ GAINDITUA gisa kalifikatuko.

Programaren hasiera:

IVAPek oroigarri bat bidaliko du, programa egingo dela gogorarazteko, hasi baino astebete lehenago, gutxi gorabehera. Izen eman dutenak saioetara joango diren baieztatzeko ere erabiliko da oroigarria.

PROGRAMA

1. SAIOA: **irailak 25**

«Arau-esparru berria, instituzionala eta testuingurukoa, non gaitasun nazionalako funtzionarioek beren zereginak gauzatuko baitituzte Euskadiko udaletan. Mugak eta erronkak».

Hizlaria:

Jesus Colás. Zaragozako Diputazioko ofizial nagusia

2. SAIOA: **urriak 9**

«Tokiko gobernantza egokia: etika, gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana udaletan».

Hizlaria:

Rafael Jimenez. Katedraduna. Pompeu Fabra Unibertsitatea

3. SAIOA: **urriak 23**

«Kudeaketa aurreratua. ereduak eta esperientziak».

Hizlariak:

Edurne Ramon. DACIMA. EJ-GV

Simón Mesanza. DACIMA. EJ-GV

4. SAIOA: **azaroak 6**

«Giza-baliabideen kudeaketa, aurrekontuei eutsi behar zaienean»

Hizlaria:

Jose Vicente Cortés. Udalerri Giza Baliabideetan laguntza emateko arduraduna. Valentziako Aldundia

5. SAIOA: **azaroak 20**

«Berrikuntza politikak Euskadiko toki-erakundeetan: zer eremutan gauzatu diren programak eta zer eremutan aurreikusi den gauzatzea. Esperientzia arrakastatsuak».

Abanto-Zierbenako Udalaren esperientzia

Irungo Udalaren esperientzia

6. SAIOA: **abendua 4**

«Aurrekontuen kudeaketa, eta politika eta kudeaketa bat etorraraztea. Kudeaketaren adierazleak, zerbitzu publikoen kostua eta zerbitzu-kartak».

Hizlaria:

Carlos Urgoiti. Aurrekontu eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria. Bilboko Udala.